381 alea otsaila 2024 febrero

www.amorebieta.com

hilero

zornotzan 32 urte

3 GOYAS

“20.000 especies de abejas”

Éxito de la última producción de Lara Izagirre

“20.000 ESPECIES DE ABEJAS” PELIKULAK HIRU GOYA IRABAZI DITU

Lara Izagirre zornotzarrak ekoiztutako pelikula honek izugarrizko bidea egin du orain dala urte bete estrenaldia egin zuenetik.

Estibaliz Urresolak zuzendari berri onenaren eta jatorrizko gidoi onenaren Goya sariak irabazi ditu..

Sofia Otero 20.000 especies de abejaseko protagonistak (ezin zuen Goyarik irabazi, 16 urtetik beherakoa denez gero) antzeztaldeko emakumezko aktore onenaren saria Ane Gabarain pelikulako kideari eman zion.

“Hemos competido de tú a tú contra un gigante como “La sociedad de la nieve”, película que la propia academia ha elegido para competir en los Oscar. Pero mantuvimos la ilusión hasta el último momento”, relata Lara Izagirre, satisfecha con los premios logrados.

Lara además destacó en la alfombra rosa con su vestido blanco de *Sophie et Voilá*. Es un espectáculo de moda, con grandes diseños en cuerpos esculturales, donde es difícil marcar la diferencia. *“Siempre apuesto por los de casa y en esta ocasión no podía faltar un diseño de la empresa de Sofía y Saioa. La influencer de moda conocida bajo el nombre de Cocochaleando nos dio su premio especial por el look más elegante. Y es que los Premios Goya son una magnífica oportunidad para dar a conocer a nuestros grandes diseñadores y nuestra moda”.*

Esta película ha logrado recaudar desde su estreno en cines el 12 de abril de 2023 más de un millón de euros en las taquillas de los cines, colocándose como uno de los filmes más exitosos de la temporada. Desde hace unas semanas, además, está en diversas plataformas de televisión como Primeran de Euskal Telebista y se ha vendido a más de 30 países.

Además, esta película ha logrado alrededor de **30 premios por todo el mundo.** En Berlín, su protagonista, Sofía Otero, obtuvo el **Oso de Plata** a la mejor interpretación

protagonista. *"Esta ha sido el premio más difícil, porque Sofía competía contra todos, actores y actrices de todo el mundo. Hay que poner en valor este premio"*, dice Lara.

En España, su primera proyección tuvo lugar en marzo, en el Festival de Málaga. Y arrasó, claro. '20.000 especies de abejas' se alzó con la **Biznaga de Oro** al mejor largometraje español de su Sección Oficial. La ópera prima de la directora vasca Estibaliz Urresola también le valió a la actriz Patricia López Arnaiz la Biznaga de Plata a la mejor interpretación femenina de reparto. Meses después, en el Festival de Cine de Almería, arrasó como mejor película y guion.

Y, después, más éxitos. En los **Premios Forqué** –los que inauguran la carrera hasta los Goya– '20.000 especies de abejas' se hizo con el galardón a la **mejor película** y al cine en educación y valores.

Tras el éxito de los Forqué, llegó el turno a la gala de los **Premios Feroz**. Y '20.000 especies de abejas' volvió a ganar a 'La sociedad de la nieve'. Además, Patricia López Arnaiz repitió con el Feroz a mejor actriz de reparto.

Un recorrido exitoso de la película producida por Gariza Films, que ya prepara un nuevo proyecto. *"Estoy escribiendo el guion de "Yerma" junto a Maria Goirizelaia, que ya ganó el Premio Max de teatro con la obra Yerma"*.

JON BASTERRETXEA "INEOS TALDEAREKIN FRANTZIAKO TOURREAN, SDA FUTBOL TALDEAREKIN ETA ZORNOTZAKO KONTSULTAN ARITZEA, ELKARREN OSAGARRI PERFEKTUAK DIRA NIRETZAT"

Oskarbi esnatu da eguna eta martxa betean da jada Zornotzako Onera fisioterapia. Argia egon ohi da beti bertan goizean goizetik eta jendea hara eta hona aritzen da handik, minak arindu nahian; asko herrikoak bertakoak, eta beste asko, kanpotik datozenak. Gorputzean edota giharretan sortu ohi diren minei konponbidea ematea ez da lan erraza, nekeza da oso, hala ere, gustatuz gero, ederra asebetetzea.

Jon Basterretxea Etxebarri muxikarra ezaguna dugu herrian, ama zornotzarra izanda eta familia bertan izanik, lotura berezia du gure herriarekin. Bahrain Merida txirrindulari taldea atzean utzi eta abentura berri bat ekingo dio aurten Basterretxeak; zein eta, Ineos talde ezagunean fisioterapeuta gisa arituko da, eta helburu nagusien artean, Frantziako Tourra izanik. Ez dira hitz makalak, bada, a ze erronka, a ze konfiantza beragan jarritakoa eta abenturaz eta erronkez betetako urtea datorkiona. Aurrera.

"Gustatzen zaidana egiten saiatzen naizen pertsona naiz, eta gaztetatik, argi izan nuen fisioterapia alorrean aritu nahi nuela. Txirrindularitza betidanik izan da nire mundua eta korredore moduen ez nabena lortu (nahiko eskasa nintzelako) ba fisio moduen lortu dot. Horrez gain, oreka bat mantentzen saiatzen naz danagaz, lanagaz, sozializazioagaz... Kanpoan lan eitea gustatzen jaten, era berean, etxeko bizixe be gustuko dot: kirola ein, neskalagunegaz eta lagunekaz planak ein, familiegaz egon... horrek danak betetan nau ni", adierazi du Jon Basterretxeak, norbere hausnarketa ederra gauzatuz.

Bahrain taldean, 4 urtez aritu ostean, aldaketa nabarmena egin du Ineosera pasata, nolatan, ba, Jon, aldaketa hau? "Duela bi urtetik hasi ziren proposamena egiten, baina oso gusture nengoen Bahrainen eta ez nion aukera horri erreparatzen; hori bai, beti argi izan dot nire txirrindularitza ibilbide profesionala ez dala luzarorako izango, beraz, aukera hau izanda, zergatik ez?".

2 Tour eta 2 Giro egin izan ditu Jon Basterretxeak Bahrain Merida taldearekin batera, eta iazko Tourra, gainera, a ze berezia izan zen Zornotzatik bertatik aterata. Hastapenetatik, alegia, 9 urtegaz, hain zuzen ere, Zornotzako txirrindulari taldean hasi zen Jon, gurpil gainean. Gerora, SDA futbol taldera pasa, Bahrain Meridatik ere igaro, eta orain, Ineosen baitabil. Ametsak betetzeko daude, eta horiengatik borrokatzean, iritsi iristen dira.

Ineos Grenadiers txirrindulari taldearen parte, bete-betean bizitzen eta sentitzen

"Erronka inportante bat da, zalantza barik, hartu nahi izan dotena, txirrindulari batzuei euren helburuak lortzen lagunduz", azaldu du Jonek. Hasi eta jarraitu. Abenduan, Mallorcan egin zuten lehen kontzentrazioan izan zuen estreinaldia Jonek Ineos taldean. Frantziako Tourreko taldearekin aritzea, horixe ere berari eskainitako zeregina denboraldi honetarako. Hortaz, honekin batera, kontzentrazioetan eta Tourra prestatzeko bidean aukeratutako lasterketetan aritzea; besteak beste, Paris-Nizan, Euskal Herriko Itzulian, eta Criterium du Dauphinen.

Urte berriarekin batera, Teide mendiaren magalean kokatutako altuerako hotelean, Tenerifen, Tourrerako deitutako 6-7 txirrindulariz osatutako taldearekin aritzea da. Kontzentrazio horietan, "ordu libre batzuk dekoguz, askatasun gehiago bai, behintzat. Goizean, aktibazioko saio bat egiten dogu, gosaldu aurretik, mobilitate ariketak, indar-aktibazioak, eta eurek entrenatzera doazenean, masajistari laguntzen diogu edota gu geu ere kirola egitera joaten gara. Bestalde, ordenagailu programa baten bidez, datu guzti-guztiak sartu ohi ditugu, besteak beste, tratamenduak, balorazioak eta diagnostikoak. Beraz, egunean, 3-4 txirrindulari ikusten ditugu eta datu horiek guztiak erregistratu behar izaten ditugu.

Barrio Euba, S/N.
Amorebieta CP 48430 (Vizcaya)
Tlf: 946 30 80 10
E-mail: administracion@vulcabarria.com

Nueva gerencia con el equipo de siempre

VULCABARRIA
Neumáticos Vulcabarria, SL.
Venta, montaje y reparaciones vulcanizadas.
Turismo, camión, agrícola, forestal e industrial.

Frantziako Tourreko egunerokoa, bizitza eta lana bertan

Munduan barrena, jende gutxi egongo da Frantziako Tourra zer den ere ez dakiena, inoiz ere entzun ez duena edota zerbait ikusi duena, telebistan edota edonon, karrerarik ezagunena baita; hala ere, Jonek dioenez, "oso ondo antolatuta dago eta erraz eroaten dan karrera bat da, ez da hain bestelakoa, bai dagoela presioa, perfekziora eraman nahi da dena, baina beste lasterketa batzuekin alderatuz, gure lana ez da askorik aldatzen".

Honakoa Tourreko egunerokoa: "goizean, txirrindulariekin berba ein, zozer behar dabien galdetu, normalean, kamioian elkartzen dira, han gosaltzen dabe, ea gaba zelan paseu dabien, tratamenduren bat behar daben, bakoitzarekin hitz egin, eta normalean, goizetan, ez da lan askorik egoten. Arinauko eguneko tratamenduek ordenagailura pasatzeko baliatzen dogu denbora. Bestalde, karreran zehar, puntu baten jartzen gaituzte, nutrizionistarekin batera. Potoak eman, eta, aldiz, arrabola egiten ari direnean, tratamenduren bat behar badute ere, hortxe gaude badaezpada. Autobusak oso erosoak dira eta toki aproposa izan ohi dute atzealdean, txokotxo bat, etzunde egoteko eta eurekin lan egin ahal izateko".

Pello Bilbaorekin izandako harreman estua

Basterretxearen hitzetan, "beragaz diferentea izan da, lagune da pertsonalki ezagutzen gara, gure familiak ezagutzen doguz eta lagunek dekoguz amankomunean. Txirrindularitzaren munduan zaila da horren inguruko elkarrizketak ez izatea, eta berarekin edozertaz hitz egin daiteke, txirrindularitza ez dan edozer gairen inguruan aritzen gara eta asko eskertzen da hori, hau da, norberaren bizitzaren inguruko elkarrizketak eukitzea, kontzentrazioetan eta lasterketetan".

Inoizko errekuperazio mailarik azkarrena dute txirrindulariek, eta Basterretxeak dioenez, "entrenamendurako sekulako gaitasuna dute eta urteko ia egun guztietan dabiltza bizikleta gainean, gainera, nutrizionisten, fisioen, kirol psikologoen eta entrenatzaileen laguntza izatea ere paregabea da".

Ineos, SDA Amorebietarekin eta Zornotzako kontsultarekin uztarturik

Futbolista bat tratatzetik txirrindulari bat tratatzera alde dezente dagoela dio Jonek, "txirrindulariek keinu konkretu bat izan dezakete, gainkarga bat, deskonpentsazio bat. Futbolisten lesioak askoz ere agresiboagoak dira, esfortzu gehiago eskatzen dute, patologia aldetik ezagutza gehiago izan behar dira", halaxe azaldu du Basterretxeak.

Kontsultako edozein pazienterengandik, aldiz, edozein esparrutan aplikatzeko, esate baterako, bere hitzetan, "nire auzokoa baldin badator, ziur ikasiko dotena berarekin gero Tourrean edota kirolariekaz nauenenean, balioko didan zerbait eta baliatuko dodan zerbait; besteak beste, nola tratatu pertsonak, zein eragin eta zein tratamendu. Arlo guztiak uztartzea, elkarren artean, osagarririk perfektuena da niretzat. Gainera, nire ama zornotzarra da eta bertako odola dekotenez, kariño handia diot Zornotzari. Nire familia hemen bizi da, lagun asko dekotez bertan, txirrindularitzan be hemen hasi nintzen, kontsulta zabaldu, eta bigarren herri moduan dekot, oso gusture nau Zornotzan eta Zornotzako jenteagaz".

Amaia Larruzea Motxobe

Жекачка, VACACIONES BAJO LAS BOMBAS

Eugenia regresa a Kiev para visitar a su marido Dimitri

Cuando estalló la guerra y la capital ucraniana era objeto de atroces bombardeos esta familia se refugió en una población cercana a la frontera con Polonia, como muchos ucranianos. Pero cuando se dieron cuenta de que no era algo temporal y que la guerra iba para largo decidieron enviar a su hijo Vlad a Amorebieta, a casa de su amiga Tatiana. Ella llegó después para estar junto a su hijo menor de edad.

Trabaja de camarera en el Bar Singing Munch, siempre detrás de una sonrisa. Nadie sospecharía jamás que su pensamiento está siempre en ese pedazo de cielo de Kiev bajo el que aún viven su marido y sus padres enfermos. Pendientes de las bombas y los drones, de las alarmas antiaéreas, con el miedo en el cuerpo.

Жекачка, así se escribe su nombre en cirílico, ha compartido sus recientes vacaciones con su marido en Kiev. El día 23 hubo un bombardeo masivo. La nueva ronda de ataques de Rusia dejó al menos siete personas muertas y unas 70 heridas. También se incendiaron varios apartamentos y edificios no residenciales. "Vivimos en un pequeño piso cerca de una fábrica que probablemente fabrica utensilios para el ejército y puede ser objeto de los bombardeos en cualquier momento. Cerca hay una estación de metro donde encontramos refugio cuando suenan las sirenas. Allí estuvimos abrazados varias horas mi marido y yo esperando que se silenciaran las bombas", relata Eugenia con una asombrosa normalidad.

Y es que Kiev trata de sobrellevar la guerra de la manera menos traumática posible. Tratan de hacer vida normal, aunque son conscientes del gran peligro que les acecha. "La gente va a trabajar y a estudiar, las tiendas están abiertas. No puedes vivir siempre con miedo. Cada día es como una nueva vida, aunque sean los bombardeos los que marquen el ritmo de nuestras vidas. Estamos atentos a una APP que nos alerta si llegan drones, misiles o aviones. Todos tenemos una bolsa o mochila preparada con la documentación, agua, comida y medicinas... porque no sabemos si tras un

Clínica dental IZA

C/ SAN MIGUEL 19 bis
(Anbulategiaren atzean)
• AMOREBIETA•
✆ 94 673 38 11
688 876 107
info@clinicadentaliza.biz

Telecomunicaciones
tdt SAT
Amorebieta
INSTALACION Y MANTENIMIENTO
C/ ARAMOTZ 13, BAJO
Tel: 944 06 46 06
Móvil: 688 86 81 88/677 20 57 72
48340 – AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
ANTENAS
ELECTRICIDAD
VIDEO VIGILANCIA
PORTEROS Y AUTOMATISMOS
SEGURIDAD Y PROTECCIÓN CONTRAINCENDIOS

bombardeo podremos regresar a casa. Nos refugiamos en sótanos o en el metro y salimos cuando la APP nos dice que ya es seguro subir a la superficie. Es una rutina de vida en medio de una guerra", relata Eugenia.

Pero a pesar de ello Ucrania se desangra. No hay cifras oficiales de muertos por ninguno de los dos bandos. La propaganda es la que manda. "Creo que hay muchos más muertos de los que nos dicen. Muchos amigos y vecinos han perdido a familiares en el frente. He estado en pueblos pequeños cerca de la frontera con Polonia. Poblaciones que ahora tienen cementerios que sobrepasan con creces su población", añade esta Kievita.

"Antes teníamos una vida maravillosa y feliz, con casa propia, coche, vacaciones en verano y parecía que vivíamos en un lugar seguro. Yo trabajaba en una agencia de viajes, mi marido en una carpintería metálica. Todo eso se derrumbó con la invasión rusa". Por ahora no hay esperanza de que termine pronto la guerra. No saben lo que les deparará el futuro. Ni si su hijo Vlad, que ahora estudia Soldadura en FP Zornotza, será llamado a filas, tampoco si su marido Dimitri, a pesar de su grave lesión de espalda, tendrá que acudir al frente. Puede que ella también regrese a Kiev a cuidar de sus padres enfermos.

El futuro es incierto. Pero la sonrisa de Eugenia no se rinde. Ucrania tampoco.

Nota: En este texto el entrecomillado no es literal. Me he permitido la licencia de atribuir a Eugenia palabras que a duras penas traduce con su móvil. Gracias por tu esfuerzo para comunicarte con los lectores de Hilero Zornotzan.

LAS CIGUEÑAS VUELVEN A ANIDAR EN AMOREBIETA

En Amorebieta hay un gran nido en el lado sur del campanario de la parroquia Andra Mari ocupado por una pareja. También han regresado a la antena de Telefónica, donde hace unos años lograron construir su nido, a pesar de que la compañía retiró el antiguo nido de la torre de telefonía en Amorebieta y colocó unos alambres en estos espacios. Hay que tener en cuenta que un nido pesa más de 100 kilos, lo que puede poner en riesgo la instalación, dificultar las reparaciones o mantener la infraestructura.

Hace ya unos años, Amorebieta se propuso favorecer la recuperación de la cigüeña con la instalación de cinco plataformas de nidificación en el parque botánico de Jauregibarria y la zona de Ixerango. Pero la cigüeña blanca es muy testaruda. De la que elige un sitio, todos los siguientes años vuelven al mismo.

En breve tiempo llegarán los nuevos cigoñinos. Estaremos atentos a la evolución de estas parejas.

// HIRITARTASUNA · CIUDADANÍA

ZUOK: Udalak gazteekin batera programak, proiektuak eta zerbitzuak garatzeko abian jarri duen ekimen berria

Habrá cinco sesiones de trabajo en las que se abordarán áreas clave como el ocio, la emancipación, la formación, el empleo, y cualquier otro tema que las y los jóvenes propongan. Estas sesiones se llevarán a cabo en el Centro Zelaieta, los sábados de 10:00 a 13:00 horas.

ZUOK ekimena Arkalazen programaren parte da, eta 20 eta 28 urte bitarteko gazte zornotzarrei dago zuzendua. Bost saioak amaitzean, bizpahiru proiektu sortzea da helburua, eta horiek martxan jartzea.

El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, en su compromiso por fomentar la participación ciudadana y escuchar las voces de sus vecinas y vecinos, ha puesto en marcha una nueva iniciativa denominada ZUOK. Este proyecto, enmarcado dentro de la estrategia Arkalaz, tiene como objetivo principal la inclusión activa de la juventud de Amorebieta-Etxano en el desarrollo y mejora continua de la localidad.

Ekimen honen helburua da zornotzar gazteekin komunikazio eta parte-hartze kanal zuzena izatea. ZUOKekin, espazio bat ireki da: bertan, 20 eta 28 urte bitarteko gazteek beren kezkak, nahiak eta proposamenak askatasunez adierazi ahal izango dituzte, Amorebieta-Etxano bizitzeko leku are hobea izan dadin

Avanzar junto a la juventud

ZUOK se alinea con el objetivo avanzar junto a la juventud zornotzarra, siendo ellas y ellos partícipes del proceso. El Ayutamiento quire que las y los jóvenes se sientan escuchados, que sepan que su voz cuenta y que pueden ser agentes de cambio en Amorebieta-Etxano.

Desde este modo, el Ayuntamiento abrió un plazo de inscripción dirigido a jóvenes entre los 20 y 28 años de edad que estuvieran dispuestos a participar en la iniciativa. Una vez cerrado el plazo, quiere agradecer a las y los jóvenes que han dado un paso adelante, y se han embarcado en el cambio conjunto de Amorebieta-Etxano.

Bost bilera

Hemendik aurrera, ZUOK parte-hartze aktiborako bidea izango da, bost lan-saiotan egituratuta. Gazteentzako funtsezkoak diren arloak jorratuko dira bertan, hala nola, aisialdia, emantzipazioa, formakuntza, enplegua, eta beraiek proposatutako beste edozein gai.

Saio horiek Zelaieta Zentroan egingo dira, larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara, egun hauetan: otsailaren 24an, martxoaren 16an, apirilaren 27an, maiatzaren 18an eta ekainaren 15ean.

// LURRALDEA · TERRITORIO

El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano y el Gobierno Vasco promueven la construcción de un nuevo instituto en Urritxe

El nuevo edificio estará situado en los aledaños del actual y albergará las etapas de la ESO y de Bachillerato.

El Departamento de Educación va a dar inicio a la redacción de los pliegos para la contratación del estudio de arquitectura que va a desarrollar el proyecto.

Amorebieta-Etxano contará con un nuevo instituto en el municipio que estará situado en los aledaños del actual edificio en el barrio de Urritxe. El proyecto prevé un nuevo edificio que albergará las etapas de la ESO y de Bachillerato. El Departamento de Educación se encuentra inmerso en la redacción de los pliegos para la contratación del estudio de arquitectura que desarrolle el proyecto de construcción del nuevo instituto.

La construcción del nuevo instituto estará situado en el terreno adyacente al actual edificio, espacio que será cedido por el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano. El actual edificio se mantendrá en activo durante el transcurso de las obras y posteriormente será derruido. Los ciclos de la Formación Profesional mantendrán su ubicación actual.

"La construcción de un nuevo instituto en Amorebieta-Etxano es una excelente noticia. Las familias zornotzarras son nuestra prioridad y contar con un nuevo espacio educativo, renovado y adecuado a las nuevas necesidades educativas, es primordial para las y los jóvenes de nuestro municipio y del entorno", explica Ainhoa Salterain, alcaldesa de Amorebieta-Etxano.

// HIRITARTASUNA · CIUDADANÍA

Auzoak dinamizatzea helbururekin, Amorebieta-Etxanoko Udalak 'Bertokoak berton' programa jarri du abian

Ainhoa Salterain alkatea Boroa, Etxano, Euba eta San Migeleko bizilagunekin elkartu da, landa-eremuetan bizi diren zornotzarrekin. Gainera, informazio esku-orri bat bidaliko du landa eremuetako etxe guztietara, jakinaren gainean egon daitezen eta ekimenean aktiboko parte hartzeko aukera izan dezaten.

Helburua da auzoetako jarduera bateratuko duen programa bat egitea, besteak bestek, kultura, kirola edo gizarte-jarduerak barne hartuko dituena.

Amorebieta-Etxanoko Udalak urrats esanguratsua eman du herriko auzoak integratzeko eta dinamizatzeko bidean, landa-eremuetako bizilagunekin topaketa zuzenak eginez. Bilera horiek Boroa, Etxano, Euba eta San Migelgo bizilagunekin egin ditu. Bilera horiek 'Bertokoak berton' programaren parte dira, eta helburu dute auzoetako jarduera bilduko duen programa bat osatzea, hainbat arlo barne hartzen dituena: kultura, kirola, arlo soziala...

Ainhoa Salterain alkatea landa-eremuetako bizilagunekin elkartu da, Arkalaz ekimenaren baitan, programaren inguruan auzotarrak entzun eta elkarlanean aritzeko helburuarekin. 'Bertokoak berton' programaren aurreneko bilera hauen helburua izan da entzute aktiboa sustatzea, hau da, auzo elkarteek antolatzen dituzten jardueren, ekimenen eta proposamenen berri izatea, ekarpenak jaso eta programan gehitzeko helburuarekin.

Ainhoa Salterainek kultura, gizarte eta kirol jarduerak herrigunetik haratago zabaltzearen garrantzia azpimarratu du, auzoak Amorebieta-Etxanoko komunitatearen ezinbesteko elementu bezala aitortuz: "auzoetara jarduera ezberdinak hurbildu nahi ditugu, eta zuen jarduera eta ekimenetan parte hartu. Horregatik, oso garrantzitsua da zuen ekarpenak jasotzea".

Informazio-bilketa

Auzotar horietako herritarrak jakinaren gainean daudela eta aktiboki parte hartu ahal izango dutela bermatzeko, Udalak informazio esku-orri bat banatuko du etxez etxe, landa-eremuetan. Material horrek, informazioaz gain, auzotarren proposamenak idazteko aukera ere eskainiko du. Ondoren, Udaletxean eta Zelaietan jarriko diren postontzietan utzi ahal izango dituzte. Horrez gain, Udalarekin harremanetan jar daitezke telefonoz, HAZaren bitartez, 94 630 00 02 zenbakira deituta, edo bertokoakberton@amorebieta.eus helbidera idatzita.

// HIRITARTASUNA · CIUDADANÍA

Udalak bizikletaren kultura sustatzea du helburu ikastetxeetan

Ekimen berriaren nahia da gazteek bizikleta ohiko ibilgailu gisa erabiltzea, bizi ohitura osasungarriak eta iraunkorrak sustatzeko asmoz, eta ingurumenaren hezkuntzan etapa berri bati hasiera emanez. 'Amorebieta-Etxano Bizikletaz' proiektuak etapa berri bat hasi du ekimen honekin; izan ere, ikastetxeetako programa gauzatu ostean, zornotzar gazteek eguneroko joan-etorriak egiteko edo aisialdiko jardueretarako bidegorri berriak segurtasunez erabiltzen ikasiko dute.

Nuevos pulsadores de pie en la fuente Urgozo para un uso más responsable del agua

El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano ha instalado tres nuevos pulsadores de pie en la icónica fuente de Urgozo, ubicada en el Parque Zelaieta. Esta mejora está diseñada para promover un uso más eficiente y sostenible del agua, en línea con los objetivos de la Agenda 2030. Gracias a la instalación de los pulsadores, el consumo mensual se reducirá aproximadamente 450 m³, lo que equivale al consumo de agua de unas 45 viviendas.

Gazte eta helduentzako ipuin laburren lehiaketa antolatu du lehen aldiz Amorebieta-Etxanoko Udalak

Udalak 'Amorebieta-Etxanoko I. Ipuin Laburren Lehiaketa' antolatu du aurreneko aldiz, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. Helburua da gazte zein helduen artean euskaraz idazteko eta irakurtzeko zaletasuna piztea. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek apirilaren 8ra arte izango dute lanak entregatzeko aukera.

El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano pone en marcha un Plan Integral de Mejoras en los barrios

Actualmente el Ayuntamiento está llevando a cabo obras de mejora en Jauregizahar y en ciertas zonas de Erkoles, mientras que el Ayuntamiento tiene planes para para iniciar proyectos en Euba, Belaustegi y Arkotxa. Este plan subraya el compromiso del gobierno local con el desarrollo y la mejora de las infraestructuras de los barrios zornotzarras, poniendo en relieve la prioridad que representan los barrios y sus vecinas y vecinos para la corporación.

El regreso de Alberto Cabrera

Amorebieta es su segunda casa y el Zornotza su segunda familia. Este tinerfeño de 25 años, que acumula ya una gran experiencia deportiva, ha vuelto a vestir de verde. Después de tres temporadas cedido por el Tenerife en el conjunto de Larrea, bajo las órdenes de Mikel Garitaonandia, Alberto se desplazó a Logroño para jugar en LEB Oro con el Clavijo. Pero las cosas no le van bien al conjunto riojano y ha realizado cambios que han afectado a varios jugadores. Alberto tenía varias opciones, pero la única apetecible era regresar a Larrea. "Hay que aprender de lo vivido y seguir trabajando. Aquí no necesito adaptación y comencé a rendir desde el principio", señala Alberto.

Ya en el primer partido que participó, el Zornotza ganó in extremis al Huelva por un punto 90-91. Y en su regreso soñado a Larrea, los verdes ganaron 91-53 contra el Almansa. Ese día, tras el partido, comprobamos el cariño que la afición le brinda a este tinerfeño. Jóvenes y mayores, sin distinción alguna, quisieron demostrarle su afecto fotografiarse con él. La marea verde no se olvida que Alberto fue el MVT en el histórico partido que supuso ganar la Copa en la temporada. "Esa victoria, esa Copa siempre estará en mis recuerdos".

Le preguntamos por las aspiraciones en esta temporada y nos contesta sin dudar que "el objetivo número 1 de esta temporada es alcanzar la promoción de ascenso. A partir de ese momento la competición se convierte en eliminatorias muy competitivas, con mucho ambiente en Larrea y el disfrute de la afición es enorme. La competición está muy igualada y todos los equipos podemos ganar al resto".

Alberto cree que el Zornotza llegará a LEB Oro. "No sé cuándo, pero llegará. Por lo menos, aunque sea una temporada, llegar a lo más alto es irrenunciable. Y sería bonito poder hacerlo con la nueva cancha de Urgozo. Baloncesto de alto nivel en una cancha top".

Alberto tiene ficha con el Tenerife una temporada más. Su sueño es jugar con su equipo en ACB. Pero mientras tanto seguirá aprendiendo en su segunda casa.

Torrealday
ASESORES CONSULTORES
Zure aholkurako!
Herriko Plaza, 4 - 1º | 48340 AMOREBIETA
tels: 94 673 33 00 | fax: 94 673 23 58
www.torrealday.es
ACREDITADO POR ENAC

CLÍNICA DENTAL
IÑIGO LARIZGOITIA SALINAS COL. 1294
ODONTOLOGÍA GENERAL
IMPLANTES
ORTODONCIA
PADI-IMQ-MAPFRE-UNIVERSALUD
www.clinicalarizgoitia.com
Gudari 1, 2ºC AMOREBIETA-ETXANO
TFNO 94 673 12 81
RPS 120/14

ASKARI Escuela de escalada

Las actividades relacionadas con la montaña siempre han tenido un atractivo fascinante para los amantes del deporte. La conjunción entre naturaleza y deporte provocan una elevada satisfacción y si a ello le sumamos una pizca de riesgo se traduce en adrenalina pura.

La escalada es un deporte exigente, requiere concentración, técnica, destreza... Y los que lo practican lo viven muy intensamente. "Todo se reduce al pedazo de la pared a la que estás aferrado con pies y manos", nos relata J. Fran Bastante, un zornotzarra apasionado de este deporte, que con su inseparable amigo Jon Etxebarria han logrado crear una escuela de escalada en Askari.

"Queremos aclarar que la denominación de escuela no se refiere a su típica acepción, es decir, nosotros no estamos allí para enseñar o dirigir, se denomina escuela a una zona equipada para practicar la escalada, con diferentes dificultades, pero con elementos de seguridad", explican estos dos zornotzarras.

El lugar elegido es Askari, que se encuentra en el término municipal de Muxika, y está situado a unos metros del cruce de Zugastieta, en la carretera BI-3231 en dirección hacia Urrutxua. "Es una zona muy bonita, hemos desbrozado y limpiado de musgo una pared de 15 metros de altura. Es un sitio para disfrutar donde hemos equipado 12 cordadas con rangos de escalada y diferentes dificultades, para principiantes y escaladores expertos".

El acceso es libre y tan solo es necesario un mínimo de material y conocimiento. "Hemos diseñado unos croquis explicativos para el acceso y parking, así como de las diferentes vías. También vamos a colocar unos carteles en los que pedimos que no se depositen basuras, se respete el entorno y el equipamiento", señalan.

J. Fran y Jon han creado esta escuela de forma desinteresada y altruista. Es su aportación a un deporte que han practicado durante muchos años y quieren contribuir así a la continuidad de esta afición entre los jóvenes amantes de la montaña y el deporte.

RESIDENCIA
PIÑUDI
Centro privado, concertado con la Diputación
✲ Asistencia permanente ✲ Personal cualificado
✲ Centro reducido (máximo 20 persona)
✲ Trato familiar ✲ Peluquería ✲ ATS
✲ Terapia ocupacional, médico, fisio y asistenta social

C/ Carmen, 26
Telf.: 94 630 86 34

85 €/día
2.363,98 €/mes





ekin 2023
Ekin 1963
60 thinking together

La Sociedad Ciclista Amorebieta presenta su plantilla 2024

Sociedad Ciclista Amorebieta
Zornotzako Txirrindularitza Elkartea

JUNIORRAK

De pie: J.C Lara, Jon Elorriaga, Pablo Gil, Aimar Elorriaga, Markel Romo, Markel Monasterio, Alex Gutiérrez
Agachados: Gaizka Robles, Unai García, Iurdan García y Ander Duñabeitia

KADETEAK

Corredores: Pello Gerrikabeitia, Manez Etxebarria, Paulo Solozabal, Hodei Santiso, Ekhi Atutxa,Izei Zuluaga, Aritz Irazabal, Lier Maguregi, Ekaitz García

Directores: Oier Larrinaga, Hodei Filardo, Aitor Fernandez

ESKOLETAKO TALDEA

Aseguru artekaritza
J.J. BURGOA
Correduría de seguros S. L.

- Vehículos *Ibilgailuak*
- Comercio *Merkataritza*
- Hogar *Etxebizitza*
- Pyme
- Accidentes personales *Istripu pertsonalak*
- Vida y jubilación, etc. *Bizi-iraupena eta jubilazioa*

San Miguel, 20 AMOREBIETA
Tel.: 94 673 00 41 Fax: 94 673 42 92

KOPISTEGIA
KOPION
COPISTERIA

FOTOCOPIAS e IMPRESIONES de TODOS LOS TAMAÑOS
B/N y COLOR - ESCANEOS DE TODOS LOS TAMAÑOS -
ENCUADERNACIONES - PLASTIFICADOS TODOS LOS TAMAÑOS -
TRABAJOS DE IMPRENTA (sellos, tarjetas, talonarios, flayers, etc)
VENTA Y RECARGA DE CARTUCHOS DE IMPRESORA
REGALOS PERSONALIZADOS... etc

aranpil@gmail.com - kopisteriakopion@gmail.com
Tel. / Fax : 94 673 09 43 San Miguel, 6 bajo AMOREBIETA

Mendi lasterketetan aritu nahi dutenentzako aukera... Herrian, bertan

ZORNOTZA TRAIL

Naturan murgildu, bere baitan sentitu, ikuspegi anitzez gozatu, inguruak ezagutu eta gorputza eta hauspoa martxan jarri kirola eginez eta sufrimendua eta gozamena bere horretan uztartuz. Horiexek mendi inguruan egin ohi diren probek eskaini ohi dutena. Horixe bera ere, Zornotza Mendi Taldeak aurten eskainiko duen aukera eta proposamen berria, alegia, Zornotza Trail taldearen sorrera. Herriko gazte eta helduen artean, mendi lasterketak sustatzea, eta azken urteetan goraldi nabarmena izaten ari den modalitate hau herritarron eta ingurukoon artean ezagutaraztea eta komunitatea sortzea du helburu. Gainera, era berean, talde-giroa, ekitaldiak, entrenamenduak eta lasterketak partekatzeko espazio bat eskaintzeko asmoa dute hizpide.

Hastapenetatik hasita, ideia amets bilakatuz

Igor Lopezen, Zornotza Mendi Taldearen presidentearen hitzetan, "urteko lehen urtaro honetan, ekintzak egiten ditugu gehienbat. Eski ikastaroko 50 plazak, ordu erdian bete ziren, adibidez. Beraz, parte hartzea arrakastatsua izaten ari dela esan dezakegu".

Zornotza Mendi Taldearen aurtengo erronken artean, "bazkideei eta herritarrei irteeren, ikastaroen eta ekintzen bidez, eskaintza gehiago eta hobeak ematea da, eta baita euskara sustatzeko ditugun baliabide guztiak erabiltzea ere".

Lander Guarrotxena Gallo, zornotzarra, mendizalea eta jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan aditua, Zornotza Trail talde honen sorreraren arduradunetako bat izan da, eta Mendi Taldearen babesa jaso ostean, eskaintza zabala eskaintzeko prest dator.

Ekipamendu espezifikoa, ikur gisa. Atal edota esparru honen bidez, mendiko lasterkarien talde bat sortzea helburu denez, klubeko bazkide bakoitzari Zornotza Trail taldearen kirol-arropa izateko aukera emango zaio, nolabait talde-sentimendua sortze aldera, eta bazterretan barrena, elkar ezagutu ahal izateko.

Komunitatea sortzeko aukerak eta baliabideak, eskura

Zelaietan egindako aurkezpenaz gain, harremaneterako email bat, instagram kontua (@zornotzatrail) eta Stravan kontua (Zornotza Trail) dute eskura eta ikusgai; baita zalantzarik izanez gero ere, mendi taldeko lokalean, bertan, galdetzeko eta argitzeko aukera.

Nondik norakoen, helburuen, sorreraren eta proiektuen berri emateaz gain, mendi lasterketetara zuzendutako gakoak, entrenamendu motak, jarduera fisikoko teoria eta aplikazio praktikoak edota ibilbide proposamenak partekatzeko asmoa dute komunitate bat sortuz.

Stravan 86 kide daude jada taldearen baitan, eta bertan, segmentuak proposatzeko, taldekideen segmentu propioak ezagutzeko, taldekideak nondik entrenatzen ote duten edota ze entrenamendu motak egiten dituzten ikusteko eta partekatzeko aukera; baita toki berriak deskubritzeko aukera ere. Gauzak horrela, esplorazioa, talde-giroa eta natura eta kirol zientziak bat eginik, hemen da Zornotza Trail talde berria.

Amaia Larruzea Motxobe

TALLERES ELECTROMECANICOS

ZURE IUR, S. L.

• Diagnosis de su vehiculo
• Puesta a punto
• Instalacion de tacografos
Mecanica y electricidad

• SERVICIO RÁPIDO

B° Ibarra / Polígono Cóndor II - Pab. 1
48340 AMOREBIETA-ETXANO

Telfs. 94 673 11 33
619 405 571 / 669 298 821

INSTALACIONES ELECTRICAS
BOBINADO MOTORES
AUTOMATISMOS Y APARELLAJE DE
CUADROS ELECTRICOS, ALARMAS, INTERFONIA

ELECTRICIDAD ZORNOTZA S.L.

San Pedro, s/n. - Polig. VALET
Teléfono 673 31 30
AMOREBIETA (BIZKAIA)

Funeraria
LARRAZ
Ehorztetxea
Servicio permanente 24 horas

Poligono Biarritz, PB. 53
48340 AMOREBIETA
Tfno.: 94 673 06 23
Fax: 94 613 56 14

José Matía. 36
01400 LLODIO
Tfno.: 94 672 77 50
Fax: 94 672 86 79

La Cruz, 1
48480 ARRIGORRIAGA
Tfno.: 94 671 00 61
Fax: 94 671 40 14

Po. Ind. Kalzadako, A1
01470 AMURRIO
Tfno.: 94 672 77 50
Fax: 94 672 86 79

www.amorebieta.com
hilero
zornotzan
BI-256-92

Teléfonos: 685 87 77 73
650 74 68 36

www. amorebieta.com
info@amorebieta.com
hilerozornotzan@gmail.com

El Carmelo
ikastetxea-Amorebieta

BATXILERGOA

ERE TEN
Kristau Eskolaren batxilergoa Amorebietan

Kristau Eskolaren batxilergoa Amorebietan

GIZA ZIENTZIAK
CIENCIAS SOCIALES

OROKORRA
GENERAL

ZIENTIFIKOA
CIENTÍFICO

MODALITATEAK

Ate irekiak: Martxoak 13, 17.30etan
El Carmelo Ikastetxeko Aretoan

Puertas abiertas: 13 de marzo, a las 17.30h
Areto de El Carmelo Ikastetxea

Arreta pertsonalizatua • Tutoretza biziak eta egokituak • Instalazio eta ikasteko gune erosoak
Unibertsitatera bideratutako kalitatezko heziketa • Eleanitza (euskera-gaztelera-ingelera-alemaniera)
Irakasle adituak eta pedagogikoki berritzaileak • Balioetan oinarritutako heziketa

Atención personalizada • Tutorías dinámicas y adaptadas • Cómodos instalaciones y espacios de estudio
Calidad educativa que mira a la universidad • Plurilingüe (euskera-castellano-inglés-alemán)
Profesionales cualificados y en vanguardia pedagógica • Educación en valores

Batxilergo Duala: gure Batxilergo eta American High Schoolen agiriak lortzeko aukera
Bachillerato Dual: titulación simultánea en nuestro Bachillerato y el American High School Diploma

El Carmelon, 1967. urtetik batxilergoa irakasten da.
www.elcarmelo.eus · Tel: 94 673 09 02 · colegio@elcarmelo.eus

KRISTAU ESKOLA
CARMELITAS DESCALZOS

ORTOMOBILITY

Mendieta 1 · Lemoa BIZKAIA
946 738 203

CARROCERIAS
TRES ESTRELLAS

• Reparación con bancada para turismos
• Secado al horno

Polígono Biarritz - Tel.: 94 673 21 36 / 48340 AMOREBIETA

PON TU SALUD
EN MANOS
PROFESIONALES
Manu Acevedo

FISIOTERAPIA
MASAJES
TERAPIA MANUAL
RECUPERACION FUNCIONAL
ELECTROTERAPIA

OSTEOPATIA
ESTRUCTURAL
VISCERAL
CRANEAL

TRATAMIENTOS EN PATOLOGIAS
TRAUMATOLOGIA
REUMATOLOGIA
NEUROLOGIA
DEPORTIVO
INFANTIL

R.P.S. 65/12

KONBENIO, 6 BAJO 48340 AMOREBIETA
TEL.: 94 630 07 13

consulta GHAR

La asociación de fotografía Uztargi Klik sigue promocionando esta afición en Amorebieta. Tras el éxito del calendario 2024, han llevado a cabo un photocall especial en los recientes carnavales, con la entrega de las fotos impresas a todos aquellos que se acercaron. La labor de Uztargi es cada vez más prolífica, en un mundo en el que la imagen es también cada vez más importante con el boom de las redes sociales.